

udal**top**

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK

#udal**top**18

Memoria historikoa, euskararen memoria

JOSEAN BUENO SAEZ DE ALBENIZ
(GASTEIZKO KOLDO MITXELENA BHI)

[www.udal**top**.eus](http://www.udaltop.eus)



Memoria historikoa, euskararen memoria

Azalpentxo honek bi zati izango ditu. Lehen zatian oroimen historikoari buruzko ikuspegi orokorraz egingo dut berba eta bertan euskararen memoria zergatik den garrantzitsua. Amaieran gure ekarpenaz, hau da, “Oroime-naren harra” webguneaz arituko gara.

Hasiko naiz Angel Lertxundi idazlearen testu batekin. Berria egunkarian 2013ko maiatzaren 17an publikatu zen, “Zapatak” du titulua:

Gorpu asko zapatarik gabe agertzen da azken gerrako zangetan. Fusilariak jabetzen joan ziren oineta-koez. “Gurea bota eder batzuekin eta jertse batekin etxeratu da goiz albarekin”, hala entzun omen zion Carmen Barojak Berako emakume bati.

Beste istorio anker bat, Miguel Plazarena. Ikuskatzailea zen Salamancako udaletxe batean Frente Popu-larretik. Haren biloba batek kontatu berri du: “gure aitonak 50 urte eta bost seme-alaba zituen akabatu zutenean. Gure aitak ez digu orain gutxi arte txintik esan hartaz. Izututa bizi izan da: aitonaren zapa-tak herriko tabernako balda batean egon dira urtetan eta urtetan, trofeo gisa. Adineko bezero guztiek bazekiten norenak ziren zapatak”. Zapatak, denen bistan. Senideek, ordea, ez dute oraindik gorpua zangatik ateratzeko baimenik lortu.

Memoria historikoa lantzeak honetaz hitz egitea dakar: iraganeko mina eta familia askoren bizipenak, urteetan isilaraziak izan diren egiak, korapilo eta ondo itxi gabeko zauriak.

Memoria historikoak normalean hiru aldetatik ekartzen da hizpidera:

1. Alde batetik justiziaren ikuspegia dago. Hor kalteak onartzea eta ardurak eskatzea da helburua, batez ere giza eskubideen urraketa larriengatik.
2. Bigarren ikuspegia ezagutza da, azken batean historia osatzeko memoriaren ikuspegiak ere integratu behar dira; botereak gehienetan inposatu egiten du ikuspegi propioa eta ikuspegi hori eraldatu eta aberastu behar da beste ikuspuntuetatik. Hor testigantzek oso garrantzi handia daukate isilarazia azalean jartzeko.
3. Hirugarren ikuspegia ordaina izaten da, hau da, konpentsazioa egitea kalteak aitortu ondoren, hau da, aitoren horrekin posiblea baldin bada nolabaiteko ordaina jasotzea.

Guk eskolan egiten dugu lan eta ikasleei begira bereziki bigarren elementua da inportantea: ezagutza landu eta zabaldu. Lan horretan baliabide asko topatu ditugu, geroago ikusiko den moduan. Datuak, informazioak bildu ditugu eta hezkuntza komunitate osoaren esku jarri ditugu. oso interesgarriak dira testigantzak, izan ere gerta-tukoa ulertzeko pertsonen bizipenek indar handia daukate.

Memoria historikoan nahiko berandu gabiltzala esan dezakegu. Ni Gasteizkoa naiz, Gasteizen egiten dut lan. Bertan errepublika garaian bazegoen alkate errepublikarra, Teodoro Gonzalez de Zarate izenekoa. Atxilotu eta beste 16 kideekin batera gau batez eraman zuten eta mendian hil zuten, eta Azazeta mendatearen gertuko bazter batean lurperatu zituzten guztiak. Hori 1987 urtean gertatu zen; bada, lehen omenaldi instituzionala, Gasteizko alkate zen horri, 2017an egin zitzaion, hau da, Franco hil eta 32 urtera. Epe luzea bada. Gipuzkoan

Elgetan 2010ean ireki zen Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrua. Bizkargi eguna Bizkaian 2015etik aurrera egiten da. Nahiko berandu gabiltzala argi dago, arrazoi asko daude horretarako eta ez gara horretan sartuko orain.

Euskarak ere historian lege jazarpena eta debekuak jaso ditu, hizkuntza gutxitua izan da alde batetik eta gutxies-
tea bestetik. Gutxitua bere erabilera esparruak mugatu egin zaizkiolako eta oso era latz batean esparru askotan
debequak jarri zaizkiolako. Ofizialtasunik duela gutxi arte ez duelako izan, eta gaur egun ere ez lurralde guztietan
ez modu egokian. Gutxitua, beraz. Eta beste aldetik gutxietsia, mespretxua jaso izan duelako historia osoan,
hizkuntza bazterrekoa, ezertarako ez dena, zaharkitua, kultura gabekoena... Egun oraindik bizirik dagoen joera
da gutxiespen hau.

Memoria historikoan hau azaleratu behar dela uste dugu. Hizkuntzaren historia ezagutzea beharrezkoa da, ez
negar egiteko edo biktimizazioa egiteko baizik eta hobeto ezagutzeko gaur egungo errealitatea: zergatik gau-
den gauden lekuan Euskal Herrian, zerk ekarri gaituen honaino... Euskararen inguruan ere hitz egiten dugunean,
ikasleek jakin behar dute euskara isilarazia izan dela, baztertua izan dela, debekatua izan dela. Bestela, nekez
ulertuko dute gaur egungo euskararen egoera zertan den eta horren arrazoiak.

Irakasle bezala beharrezkoa ikusten dut ikasleek ezagutzea hau guztia. Euskara eta euskaraz irakasteak gure
hizkuntzaren egoera ezagutzak kontuan hartu behar ditu gure hizkuntzaren iragana, hizkuntzaren oraina eta
geroa ere bai, gogoeta horretan memoria historikoa zerbait dinamikoa bihurtzen da: hau gertatu da, hemen
gaude, zer nahi dugu hemendik aurrera. Ez da soilik iraganari begiratzea, hortik ondorioak, pertsonalak ere bai,
ateratzea beharrezkoa da.

Gogoeta hau hizkuntza hegemonikoetan ez dakit hain beharrezkoa den, baina gurean bai, dudarik gabe. Euskal
hiztunengan kontzientzia txertatu behar da. Eta horretarako, iraganeko begirada horrekin batera soziolinguisti-
ka tresna funtsezkoa da ondo interpretatzeko eta ondo ulertzeko. Gure institutuan soziolinguistika beti eduki du
lekua curriculumean. Memoria historikoarekin ere lantzen ditugu edukiak: hizkuntzen prestigioa lantzen dugu,
hizkuntzen funtzioen garrantzia, elebitasunaren baldintzak, diglosia zer den, hizkuntzen oinarria eta dinamika
sozialak... Euskal Herriko gazteek hori guztia ezagutu behar dutela uste dugu, euskaraz ikastearekin eta jakitea-
rekin batera kontzientzia soziolinguistikoa ere landu behar da.

Euskal munduan, euskal kulturaren munduan, beti egon da kontzientzia soziolinguistikoko bat: hizkuntzaren in-
guruko kontzientzia Etxepare berak XVI. mendean euskarazko lehen liburua publikatu zuenean bazeukan kon-
tzientzia soziolinguistikoko hori. Ez zuen, jakina, deituko soziolinguistikoa baina bere hitzetan, beren bere euskara
laudatzeko kanta horietan, kontzientzia hau argi dago: erakutsi behar da euskarak balio duela ere idatzia izateko,
euskara plazara atera behar da, ez du gutxiago balio... Hori guztia gure historiaren hasieratik daukagu. Bai boron-
datea bai asmoa beti egon dira hizkuntza bizirauteko nahia justifikatzean. Horixe bera da gaztetxoekin eskolan
landu nahi duguna

Ondorioz, bi ildo nagusi daukagu:

- alde batetik elementu emozionalak behar beharrezkoak dira, eta horretarako bizipenak eta testigantzak oso garrantzitsuak dira; jarreran eragiteko bidea da
- Beste aldetik elementu arrazionalak behar dira, jakintza eta interpretazio egokiak egiteko tresnak behar dituzte, ikasleek euskararen egoera ondo ulertuko badute; ezagutzan sakontzeko bidea da. Bide kognitiboan eragiteko lehen aipatutako soziolinguistikaren kontzeptuak lantzeko aukera handia ematen digute testu historikoek, debekuak. Hori soziolinguistikaren analisiarekin lantzen da, hizkuntzen inguruan ikasleek interpreta-
zio giltzak eta gutxieneko ezagutzak izateko.

Hau lantzea bereziki garrantzitsua da gaur egun bi arrazoiengatik:

- Gero eta urrunago dago hizkuntzaren jazarpen latzaren oroimena gure inguruan. Nik adibidez gogoratzen dut Gasteizen ni umea edo gaztetxo nintzenean udaletik ez zela heltzen paper bat ere euskaraz, dena gaztelera hutsez zetorren, bizitza ofizial guztia gaztelera hutsean egiten zen. Gogoratzen dut lehenengo paperak udaletik etxera bi hizkuntzatan heldu zirenean zein harrigarri (eta zein pozgarri) egiten zitzaigun udalaren paperak euskaraz ere bazeude ikustea. Gure ikasleek ez dute holako esperientziarik, betidanik izan dute euskarara hor nolabait paisaia publikoan. Normalizat dute. Gaur egungo itxurazko berdintasun egoera hori ondo ulertzeko iragana ezagutu behar dute.
- Bigarren elementua da gero eta ikasle gehiago kanpotik etorritakoak direla, batez ere oso era nabarmenean irakaskuntza publikoan. Segregazio egoera gero eta larriago honetan familia askok ez daukate erreferenterik ez hizkuntzaren inguruan, ez frankismoak zer ekarri zuen... Haientzat erabat arrotza da historia hori. Lan bat egin behar dugu transmisio hori lortzeko, segregazio egoeran transmisio horizontalak ere oztopo handiak baititu (berdinen arteko ikaskuntza). Euskaraz ikasten dute ikasle hauek gehienek eta jakin eta ulertu behar dute hizkuntza hori zer den, nondik datorren eta ze borroka izan duen orain dagoen lekuan egoteko, eta zergatik dagoen gizartean dagoen bezala.

Laburbilduz, ikasle guztiek ulertu behar dute euskararen gaurko egoera ez dela naturala, ez dela betidanik horrelakoa izan. Euskarak bere historian jaso izan dituenak ulertu behar dira eta memoria historikoaren ataletako bat hau da.

Zergatik sartu gara Memoria Historikoaren kontu honetan? Zerk ekarri gaitu institutuan hau lantzeraz?

Gure esperientzia institutuan 2009an hasi zen. Ikasturte amaierako klaustro batean plazaratu zen kezka, 14-15 urteko hainbat ikasle ari ziren "viva Franco", "arriba España" eta holakoak botatzen pasabideetan, seguruenik probokatzeko asmoz; sare sozialetatik jasotako kontuak ziren, seguruenik. Guk serio hartu genuen klaustroan, komentatu eta adostu genuen zerbait egin behar genuela ikasleek ez zekitelako ondo zer ari ziren esaten eta horrek zer suposatzen zuen.

Lau irakasle hasi ginen lanean horrekin: Aiako Gaztelumendi, Koldo Alijostes, Miren Rodrigo eta laurok. Udan nor bere aldetik ibili ginen materiala biltzen eta lantzen, gurean erabiltzeko. Irailean berriro elkartu ginenean ikusi genuen material asko bildua genuela, material interesgarria, material aberatsa, eta pentsatu genuen ez zela egokia guretzat bakarrik geratzea. Wegunea sortu genuen institutuan, webgune irekia: "Oroimenaren arra" izena jarri genion. Izena Xabier Montoiaren liburu batetik jaso genuen, Golgota hain zuzen ere.

Webgune horretan ibili gara orain arte ba materiala sortzen memoria historikoaren, inguruko gauzak ekartzen handik eta hemendik. Jende askoren ekarpena dago hor, jende askorekin hitz egin dugu bere materiala eta beren kontuak gurean jartzeko. Auzolan bezala planteatuta dago, edonork proposatu ahal zuen materiala hor sartzeko eta edonork erabili ahal zuen hortik materiala bere eskolan erabiltzeko. Hauek dira webgunearen atalak:

- Unitate didaktikoak: gai asko agertzen dira bertan
- Testuen lanketa: bereziki Batxilergoan lantzeko testuak, USAPari begira
- Baliabideak: zatirik handiena eta aberatsena: historia, literatura, ikus-entzunezkoak, artea, ikastetxeetako ekimenak...
- Webgune interesgarrien loturak

Ikusten denez, material gehien-gehienak euskaraz daude, hori da gure lanerako hizkuntza. Salbuespenez material batzuk beste hizkuntzetan daude (ingelesean eta gaztelanian).

udal**top**

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus